

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Onartzea 2016-2018 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalbatzak, 2016ko martxoaren 1eko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Kanpezuko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2016-2018) onartzea. Honekin batera doa plana, eranskin gisa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn, udalaren web orrian (www.campezo.eus) eta iragarki taulan argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak eman nahi dituzten herri administrazioetako organoek dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar dute, eta honako hauek zehaztu behar dituzte bertan: dirulaguntzen helburuak eta haien bi-tartez lortu nahi diren ondorioak, horiek gauzatzeko epealdia, aurreikusten diren kostuak, eta finantzabideak. Plana gauzatzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Legearen printzipioetako bat gardentasuna da. Horrek, legean ezarritako beste hainbat tres-narekin batera, zuzenean dakar dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea. Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aurreikusten da dirulaguntzen plan estrategikoa bat prestatzea, urte anitzekoa, baina urtez urte eguneratzeko modukoa, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horregatik, udal honek dirulaguntzen plan estrategikoa onartu du. Hona artikulua:

I. kapitulua - Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek plan honetan jasotakoaren arabera ezarriko ditu dirulaguntzak 2016-2018 al-dian. Plan hori eranskinean jaso da.

2. artikulua

Plan honetan jasotako dirulaguntzak eman ahal izateko, derrigorrezkoa da urteko udal aurre-kontuetan esleipenak egitea eta oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak edo oinarriak onartzea.

3. artikulua

Dirulaguntzak emango dira baldin eta aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzen badira. Hortaz, onartzen diren aurrekontu esleipenak eta horiek ematea arautzen duten oinarriak aipatutako helburuetara moldatu beharko dira unean-unean.

4. artikulua

Dirulaguntzen plan estrategikoa onartzeak ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

II. kapitulua. Dirulaguntzen onuradunak eta zer arlotan emango diren

5. artikulua

Udalak dirulaguntzak emango dizkie onura publikoko edo gizarte intereseko jarduerak edo toki eskumeneko xede publikoak lortzera zuzendutakoak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo erakunde pribatuei.

6. artikulua

Udalak urtero ezarriko ditu dirulaguntzak ondoko gai hauetan:

- Gizarte ekintza. (jaiotzak, ondarea zaharberritzea, administrazio batzarrekiko lankidetzak)
- Euskara, kultura eta kirolak

III. kapitulua. Planaren kontrola eta ebaluazioa

7. artikulua

Alkateak kontrolatuko du plan hau betetzen den, indarrean den bitartean, eta udalbatzari emaitzen berri emango dio.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna aztertzeko, kasuan kasuko zerbitzuko teknikariek honako hauen berri emango dute: egindako ekintzen irismena, dirulaguntza jasotzen duten herritarren kopurua eta helburuen justifikazioa.

IV. kapitulua. Finantza kontrola

8. artikulua

Diruz lagundutako programen finantza kontrolaren arduraduna Udal Kontu-hartzaitza da, eta berak aztertuko ditu diruz lagundutako zenbatekoak ordaindu diren egunak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatutako betebeharren justifikazioa.

9. artikulua

Planaren indarraldia amaitutakoan, hurrengo plana egin aurretik, alkateak memoria aurkeztuko dio udalbatzari; bertan, gutxienez, hauek agertuko dira: plana zenbateraino bete den; dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia, lortu nahi ziren helburu eta ondorioei dagokienez; eta ondorioak, bai eta hurrengo dirulaguntzen plan estrategikoa taxutzeko iradokizunen proposamena ere.

PARTIDA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
480001	LAGUNTZAK JAIOTZENGATIK	4.000,00
481000	LAGUNTZAK KULTURA ERAKUNDEEI	6.000,00
481000	LAGUNTZAK HIZKUNTZA SUSTAPEN ETA NORMALIZAZIORAKO	3.200,00
481000	LAGUNTZAK KIROL ERAKUNDEEI	4.500,00
422000	ADMINISTRAZIO BATZARRAK – GASTU OROKORRAK	15.000,00
434002	ADMINISTRAZIO BATZARRAK – JAIEN ANTOLAKETA	5.000,00

Santikurutze Kanpezu, 2016ko martxoaren 2a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO